JON BRAUN

ANITA MARAVILLAS TEATRO & PORTAL 71



zornotza aretoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

SAREA
EUSKADIKO ANTZOKI SAREA
RED VASCA DE TEATROS

ametx

portal71
71 producciones culturales

Anita maravillas
teatro marionetas



JON BRAUN

SINOPSIA

Indio txikien herrian zoriona eta poza dira nagusi. Baina, bat-batean, Jon Braun txikia eta bere arreba Malintxe banatuko dituzte.

Urrunean, Malintxe ausartak ez ditu bere neba eta herrixka ahaztuko.

Jon Braunek bere arrebaren bila abiatzea erabakiko du. Zoritxarren aurrean maitasunak ematen digun ausardiari buruzko istorio zirraragarria.





JON BRAUN

Zergatik JON BRAUN?

Atzo eta gaur umeek zoritxarreko garaietan bizi dituzten egoerak apalki taularatu nahi izan ditugu.

Istorio hau txikienei kontatzeko, Imanol Urbietaren pertsonaian oinarrituta, ipuin bat asmatu dugu, betiere, estetika zaindu bat eskainiz, western itxuran koloreztatuta eta kantatuta, abenturaz, umorez eta emozioz jantzita. Baina batez ere, zoritxarren aurrean maitasunak ematen digun adorea islatu nahi izan dugu.

JON BRAUNek munduko Jon Braun txiki guztiak hurbildu nahi dizkigu aretoko eserlekuetara.





JON BRAUN

FITXA ARTISTIKOA

JATORRIZKO IDEIA	Anita Maravillas Teatro
ZUZENDARITZA	Iván Alonso
AKTORE-MANIPULATZAILEAK	Miren Larrea, Valentina Raposo
MUSIKA	Fran Lasuen
ARGIZTAPENA	Ion Chávez
ESZENOGRAFIA	Iñaki Ziarrusta (ATX teatroa)
PANPINEN SORKUNTZA	Anita Maravillas Teatro
SOINU ESPAZIOA	Alberto de La Hoz
KARTELA/ ESKU-ORRIA	Susanna Martin
EKOIZPENA	PORTAL 71
EKOIZPEN EXEKUTIBOA	Maria Goirizelaya
BANAKETA	Rocío Pindado
LAGUNTZAILEA	Zornotza Aretoa
DIRU-LAGUNTZA	Eusko Jaurlaritza

ANTZEZLANARI BURUZKO INFORMAZIOA

Antzerki mota: Titere ikuskizuna.
Nori zuzendua: Publiko familiarra, 4 urtetik aurrera.
Hizkuntza: testu gabekoa.
Iraupena: 50 minutu.

INFORMAZIO TEKNIKOA

Bira ekipoa: 3 pertsona.
Espazio egokia: 8 x 5 x 6
Beharrezkoa: Kamara beltza.






ANITA MARAVILLAS TEATRO

Antzerki-talde gutxik lantzen dute titere-antzerkia esklusiboki, eta Anita Maravillas da horietako bat. Bidea luzea dauka prestakuntzan eta ikerketan. Konpainia honek Bartzelonan eman zituen lehen pausoak, eta, gerora, Euskal Herrian sortu izan dituzte hainbat lan, Zornotza aretoaren laguntzaz eta Portal 71 ekoizpen-etxearekin batera.

Taldea Miren Larreak (euskalduna) eta Valentina Raposok (txiletarra) sortu zuten. Titere-antzerkiko hainbat teknika ezberdinetako prestakuntza jaso dute, Pepe Otal, Jordi Bertrand eta Herta Frankelen eskutik. Azken hauekin harizko txotxongiloen teknika perfekzionatu zuten.

Anita Maravillasek bost lan egin ditu: “Los sueños de Leonor”, helduentzako lana, “Sarean sun sun”, “Blue Bird” eta “PINTTO PINTTO”, familiei zuzenduta, baita kalerako panpin kalejira "SARDIÑA BAKALAU". Kritika eta harrera oneko lanak izan dira guztiak.

Beraien sorkuntza prozesuan ezinbestekoa da panpinen sorkuntza tailerra. Bertan jaiotzen dira pertsonaiak, eta zehaztasunik txikiena zaintzen dute.




PORTAL 71

PORTAL 71k, antzezlanen banaketan dihardu, baita antzezlan propioak edo enkarguz eginiko antzezlanen ekoizpenean edo ta zerbitzu kulturaletan lan egiten du. Baita programa kulturalei zuzenduriko asistentzi teknikoan ere.

Arte eszenikoen sektorean eta kudeaketa kulturalean, ibilbide eta eskarmentu handia dauka, eta kultura sarearen hobekuntzan lan egiten du momentu oro.

PORTAL 71k berriz ere konfidantza osoz, ANITA MARAVILLAS TEATRO taldearekin lan egiten du ,aspaldiko bidai-lagunak dira, urteetan sustraituriko harremanean oinarrituz, berriz ere, batera beraien azken lana aurkezten dute : JON BRAUN.



KONTAKTUA

BANAKETA

PORTAL 71 – Rocío Pindado
635708997
rociopindado@portal71.com
www.portal71.com

KONPAINIA
www.anitamaravillasteatro.blogspot.com

